

Jakinarazten da Alkateak, 2025eko martxoaren 27an honako Dekretu hau eman duela:

“2025eko otsailaren 6an onartu ziren Bergarako Erramu Zapatuko ferian euskal labela duen produktua erreta saltzeko jarriko den txosnaren ustiapenaren adjudikazioa arautuko zuten oinarriak.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2025eko martxoaren 27an oinarriari jarraituz zozketa egin da eta ateratako hurrenkera honako hau izan da:

- Bergara Aurrera
- Burdiñola Irristaketa kluba
- Harrera elkarte

Hori ikusita,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Euskal labela duen produktua erreta saltzeko jarriko den txosnaren ustiapena Bergara Aurrera elkarteari adjudikatzea, oinarrietan jasotako baldintzetan.

BIGARRENA: Beste 2 eskatzaileekin itxarote-zerrenda osatzea, honako hurrenkera honekin:

1. - Burdiñola Irristaketa kluba
2. - Harrera elkarte

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea interesatu guztiei, ebazpen honen jakinarazpena argitaratuta udaleko web-orrian, feriarri dagokion atalean.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen den egunetik (2025/03/27) kontatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean iragarki hau udaleko web orrian argitaratzen den egunetik (2025/03/27) kontatzen hasita.

Dena den, egoki iruditutako beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta Lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2025eko martxoaren 27a

